



## European ere, udaberria

**TOLOSA** ▶ Eguraldi kaskarra egin arren, XVII. Lore eta Landare Azokak goiz-goizetik erakarri zuen jendea, atzo, Berdura plazara

**SALMENTAK** ▶ Postuz postu jende ugari ibili arren, «aurreko urteetan baino gutxiago» saldu dutela zioten lorezainek ▶ 6-7



**MARTIN LEUNDA** ▶  
ERNIOZALEAK  
KULTUR ELKARTEA



N. URBIZU

«Ernio maite dugunok hara garamatzaten bideak txukun nahi ditugu»

Hilaren 14an elkarteak antolatu duen Erniopeko V. Mendi Ibilaldiaz, hernaldearrarekin ▶ 3

Berdura plaza jendez josita ikus zitekeen atzo, lore eta landareen kolore biziez inguratuta (ezkerrean). Baratzako landare ugari ere eros zitezkeen bertan (eskuinean, goiko argazkia). Kultur Etxearen horman, 4.000 klabelinez estalitako 750. urtemugaren logoa izan zen ikusgai. E. EZEIZA

hitza  
argazki  
lehiaketa



eman botoa

**BOTOA EMATEKO**


- ▶ P. elektronikoz: [tosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tosaldean@tolosaldekohitza.info)
  - ▶ Telefonoz: 943 65 56 95
- Botoaz gain, datu pertsonalak behar ditugu

**Irabazleak, maiatzak 14 igandeko egunkarian**

Sari  
nagusia

**BIDAIA** paregabe bat  
zure neurrira

2 lagunentzat 5 eguneko egonaldia,  
mantenu erdiarekin  
Asturiasen edo Costa Bravan



Bidaia Agentzia  
**bidaide**  
[www.bidaide.gruposercor.com](http://www.bidaide.gruposercor.com)

Erniobera, 6-behea • 20150 Villabona  
Tel.: 943 692 693  
[bidaide@gruposer.com](mailto:bidaide@gruposer.com)

ZOKETA  
APARTAK



**PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE**  
guztien artean HITZAren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira



## UZTURRETIK ▶ EKAIN GARMENDIA

## Dan Brownez potrotaraino



**A**pirilaren 23a Sant Jordi eguna izan zen, Katalunian liburuak saltzeko aprobetxatzen duten eguna. Bartzelonan bizi naizenez, kalera jo nuen, liburu postuei bistazoa bota eta paseoa egitera. Kaleak jendez gainezka zeuden —ez dakit, gomendatu dieten estatutua hemendik gutxira onartuko dutela-eta pozik daudelako aterako ziren agian denak kalera—; jendez, eta liburuz gainezka, noski.

Kontua zera da, postuz postu, saltzaileen aurpegiak aldatzen zirela, baina eskaintza

bera zela, gutxi gorabehera, stand guztietan. Durangoko hipermerkatuaz nahi dituztenak botako dituzte, baina Bartzelonakoan oparitutako arrosak ere plastikozkoak zirela esango nuke. Ba hori, kopia asko baina liburu gutxi postuetan. Eta stand guztietan errepikatzen ziren izenen artean, bat guztien gainera: Dan Brown. Badakizue, *best seller*-ak idazten dituen hori, *The Da Vinci Code* dela-eta hain ezaguna egin dena. Da Vinci-ak, Da Vinci-ari buruzkoak, *Angels and Demons*-ak, edo nik ez dakit zer liburu tardean zela, ia stand guztietan azaltzen zen haren izena. *Deja vu* sentazioa gainetik kendu ez nuela —eta Dan Brownez potrotaraino nagoela ja erabakita— kartel bat ikusi nuen, laster estreinatuko duten *Da Vinci Code* madarikatuaren

zine bertsoia iragartzen. Eta bertan, lelo bat: «Izan zaitez fenomenoaren parte», davinizaleek komunitate bat osatuko bailuten. Ez dakit, akaso, katalanei gomendatu dieten estatutuak *komunitate, nazio* eta halakoen semantika modan jarri duelako aukeratu zuten leloa, baina kontua harago doala uste dut: gaur egun, kontsumitzen dugunak eratzten du hein handi batean gure identitatea; liburuak kontsumo produktuak dira —galdeu bestela Dan Browni—; beraz, bestelako komunitaterik ezean eta identitate baten faltan, liburu edota pelikula hori erosteak komunitate baten parte egiten gaitu, gure lasaitasunerako.

Ez naiz fenomenoaren parte izango. Ez dut pelikula ikusiko. Ez dut liburu irakurriko.

## ESANAK ▶

EDURNE PASABAN  
MENDIZALEA

«Mendizale bati 'nahikoa da' esateko uena iritsi behar zaiola pentsatzen dut. Geldialdi bat egiteko uena iritsi dela uste dut»

«Nire bizitzan aldaketa handi bat dator. Barruan sentitzen dudana gauza da. Banekien horrelako aldaketa baten behar nengoela, eta azken denboraldian oso argi ikusi dut»

«Pertsona bakoitzak bizitzari buruzko ikuspegi desberdina du. Nik bizitza gehiago baloratu behar dela ikusten dut. Lurralde oso txiroetan egon naiz; gu oso aurreratuta bizi gara. Askotan kexatu behar ez ginatekeen gauzatzat kexatzen gara»

«Hemen jende asko erosotasunagatik protesta egiten du. Eta gauzak lortzeko lana eta esfortzua behar dira»

'Galtzaundi'  
(2006ko apirilaren 7a)

## ASTEKO IRUDIA ▶



IMANOL GARCIA

## 5.000 lagun Larraitzen, Aralarko larren irekiera festan

**Leire Montes** ▶ Maiatzaren 1arekin batera, ohiturari jarraituz, Aralarko larreak ireki zituzten astelehenean, Larraitzen. Bederatzigarren aldian zen aurtengoa Enirio-Aralar Mankomunitateak festa antolatzen zuena, eta jendetza bildu zen: 5.000 lagun inguru. 18.000

ardi, 800 behi eta 600 behor asetuko dira Aralarko belarraz datoreen uda honetan. Batzuk igo dira mendi larreetara, baina hilaren 15etik 20ra eramango dituzte kopururik handienak, hain zuzen ere, abelburu guztien %90 inguru. I. GARCIA

## iragarki laburrak ▶

## LANPOSTUAK

**Gidariak.** Udaletan eta Eusko Jaurilaritzan laster lanpostuak B1, BTP eta C1. 943 31 37 82.

**Garbitzaileak.** Lanpostu libreak: Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa 943 31 37 82.

**Mantenimendu Ofiziala.** Ospital, egoitza eta udaletxerako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak** behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak,

garbitzaileak. 943 31 37 82.

**Osakidetzak.** Lanpostu libreak. Teknikariak, alborategi laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Langileak.** Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak,

gidariak. Udaletxerako lanpostu libreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Administrari laguntzaileak.** Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendara eta Anoetako udalek administrari laguntzaile

lanpostuak bete behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Aireportuak.** Lanpostuak betetzeko: bezeroari arreta, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak, mantentze-lanak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

MARTIN LEUNDA ▶ ERNIOZALEAK KULTUR ELKARTEKO KIDEA

# «Ernio eta Ernioaldea maite dugunok hara garamatzaten bideak txukun nahi ditugu»

N. Urbizu ▶ Martin Leunda herrialdearrak hilaren 14an izango den Erniopeko V. Mendi Ibilaldiari buruzko kontuak aipatu dizkio HITZARI. 50 urteko mendizale honek, mendiaz gain, bere ingurua ere maite du; eta hori da, haren esanetan, mendi ibilaldi hau egiteko arrazoietakotat.

**Zer da Erniopeko Mendi Mar-txa?**

Bi urtetan behin egiten den ibilaldia da, 48,6 kilometrotakoa, dena mendiz egina. 8 herritatik igarotzen da, aspaldi erabiltzen ziren bideetatik; aurretik lagun batzuek garbitu eta txukundu egiten dituzte bide horiek. Urte-tik urtera sasi asko ateratzen baita, baina gero eta errazagoa da lan hau egitea.

**Ibilbidea egiteko prestaketa berezia behar al da?**

Igoera eta jaitsiera asko ditu, eta hori da ibilaldian gogorre-na; baina, bestela, eroso da, hanke ez baitute gehiegi sufritzen. Ohitura behar da men-dian ibiltzeko, azken finean, 11 ordu dira zutik eta oinez... Bai-na kontua ez da azkar egitea, bideaz gozatzea eta parajeak ikustea baizik. Garrantzitsua da norberak bere poltsa eramatea, bidean jan nahiko di-tuenak eta oinarritzko gauzak sartzeko.

**Zein da ibilbide hau egitearen arrazoa?**

Hasiera batean, 1997. urtean, lagun batzuk bildu ginen Er-nion dagoen gurutzeak 50 urte bete zituelako. Bertan zegoena txukundu egin genuen. Ondoko borda erortzeke zegoen, eta hura berritzea ere erabaki genuen. Helikoptero baten laguntzaz, tresneria hara igo eta horrela egin ahal izan genuen. Gaur egun borda hori aterpe moduan erabiltzen dugu.

**Eta beste urteetan zer egitea pentsatu zenuten?**

Urte horretan hara joan gine-nok gure guraso eta aitona-monek herri batetik bestera joateko erabiltzen zituzten bide-kak txukuntzen hastearen beharra ikusi genuen, honela ibilbide zaharrak berreskuratzeko. Lehenengo urteetan bi



N. URBIZU

**IBILBIDEAN XARMA**

«Kontua ez da 48 kilometroak azkar egitea: bideaz gozatzea eta parajeak ikustea da garrantzitsuen»

metrotako luzerako sasiak kentzen genituen. Diru laguntzak eskatu genituen lehen aipatu-tako borda hori txukuntzeko, eta gauza gehiago egiteko asmoa genuenez, Kultur Elkarte bat sortzeko arrazoa iruditu zitzaigun. Hortik, Erniozaleak Kultur Elkarte jaio zen. Geroz-tik, mendiko bideak markatu egin ditugu, besteak beste.

**Zein da aurtengo ibilbidea?**

Aurten Errezilen hasiko da, eskuin aldera inguratuko dugu Ernio. Errezildik Zelatunera

**AZKUE GOGOAN**

«Mendi ibilaldi hau antolatzen zuenetakoa zen; hura zen, esaten den bezala, gurditik tira egiten zuena»

igoko gara. Ondoren, Aia, Aristerrazu, Bulano eta Asteasu, Larraul, Alkiza eta Hernialde herrietan igaroko gara. Segi-dan Artzubira igoko gara, gero Albizurrera jaisteko. Bide-goian-dik bueltan Errezilera iri-tsiko gara berriro.

**Aurten zerbait berezia egingo al duzue?**

Joxean Azkue zena mendi ibilaldi hau antolatzen zuenetakoa zen. Ez dugu ezer berezirik egingo, baina argi dago gogo-an eramango dugula denok.

**ERNIOPEKOAK**

«Herri batetik bestera joateko gure arbasoek erabiltzen zituzten bideak txukuntzearekin hasi ginen»

Besterik gabe, asko somatzen da haren hutsunea. Bera zen, esaten den bezala, gurditik tira egiten zuena.

**Atsedan lekurik prestatu al duzue?**

Beti bezala, leku zehatz batzuetan jana eta edateko zerbait jarriko ditugu. Kasu honetan, Aian, Alkizan eta Albizurren izango dira. Dena dela, ez da la-guntzarako besterik izango: bakoitzak bere janaria eraman behar du gainean. Bestetik, DYA ere egoten da, zer edo zer

gertatuz gero, laguntza emateko.

**Inoiz gauza berezirik gertatu al da ibilaldian?**

Betikoak izaten dira: oinetako mina izaten da gehienetan, ka-lanbreak ere giharretan... Behin emakume bat zorabiatu eta konortetik gabe geratu zen Zelatumen, beroarengatik edo nekearengatik... Kasu berezia izan zen.

**Nola edo non eman behar da izena?**

Tolosaldea Tour-en bulegoan, Tolosan, eman daiteke, baita Internet bidez ere, www.tolo-saldea.net web orrian. Dena dela, Errezilgo plazan ibilbi-dea hasi baino ordubate lehe-nago egiten bada ere onartu egiten dugu. Beraz, hilaren 14an 05:00etan gutxienez han egon beharko, 06:00etan hasi-ko baita martxa. Fitxa bat ere banatuko dugu, bideko hiru hornidura guneetan zigilua jartzeko; ibiltaria handik pasatu dela ziurtatzeko modu bat da.

**Zenbat lagun espero dituzue aurten?**

Hori oraindik ez dakigu, baina 400 bat mendizale elkartzen gara egiten den ia guztietan. Aurten ere hala espero dugu. Dena dela, bideak dituen ezaugarri fisikoengatik, ez luke askoz jende gehiago ere onartuko.

**Bukatutakoan berriro bideak ikuskatu behar...**

Ibiltarien atzetik beti patruila bat joaten da, jende talde bat, erabili diren bideetan zehar utz daitezkeen langak ixteko, zaborrak jasotzeko, edota han egon behar ez duena biltzeko.

**Umeekin zer edo zer egiten al duzue?**

Egin izan dugu, baina ez da erraza denak biltzea. Gure 8 herrietako haurrak elkartu izan ditugu parajeak hobeto ezagutzeko, eta interesgarria da, inguru ederra dugulako.

hitza **lagunen txokoa**

▶ Hitza lagunen txokoa, zozketen irabazleak:

▶ Astelehenean, Maiatzak 8 - Beotibar pilotalekuan, 16:30etatik aurrera jokaturiko diren pilota partidetarako bina sarreren harpidedun irabazleak:




- ▶ PATXI RENOVALES TOLOSA (ALEGIA)
- ▶ IZASKUN KARRERA UGARTEMENDIA (TOLOSA)
- ▶ ANDRES ARAMENDI TXOPIITA (IBARRA)

▶ Ibarako III Garagardo Festarako bina afariren harpidedun irabazleak:

- ▶ JOXI LASA ARSUAGA (IRURA)
- ▶ JOSE LUIS IRAOLA GARMENDIA (VILLABONA)
- ▶ MILAGROS IZTUETA MENDIZABAL (ALTZO)
- ▶ JOSE RAMON ESNAOLA ZABALA (LEABURU)


Txartelak azokan bertan jaso beharko dituzte.



HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

## Bidaia, gertuago

Hauek dira III. HITZA Argazki Lehiaketako zortzi finalistak; zuen botoek erabakiko dute nork irabaziko duen Villabonako Bidaide agentziak emandako bidaia; hilaren 12ra arte eman dezakezue botoa



1 Jon Etxeberria (Hernani). «Alemania (parraldean ateratakoa da argazkia, Baitikoko itsas ertzean».



2 Jon Ander Aizpursa (Ibarr). «Urduñako gainan Ortzadar bikoitzak bunditua gintuen».

### ERREDAKZIOA

Azken txanpara iritsi da Hirzak antolatutako III. Argazki Lehiaketa. Aurrekoetan bezala, oraingo honetan ere oso arrikastatsua izan da delatdia. Hain zuzen ere, 122 argazki jasotzitu dira, eta 28 lagunek parte hartu dute. Probo askotako irudiak iritsi zaitzigu, Euskal Herrikoak bertakoak ugen, eta baita kanpokoak ere. Argazki horien gutxienez, epaimahaia dagoeneko aurreratu ditu zortzi finalistak orriotan agertzen direnak, hain zuzen.

Orain, zuei dagokizue argazki irabazleak aukeratu. Binarrik, hasita eta hilaren 12ra arte, gustukoen irudia hautatu, eta haren aldeko botoa eman, argazkiak duen zerbaita esanez. Hori bai, bakoitzak behin baino ezin izango du botoa eman. Bi bidetuzuzue horretarako boto elektronikoa eta telefonoa.

Zuen botoei esker lehiaketa irabazten duenak Villabonako Bidaide agentziak emandako bi lagunentzako bidai zoragarri bai jasoko du sari. Parte-hartzaileen artean eta botoa ematen duzuenen artean Hirzako materiala zozketariko dugu. Hilaren 14an jakinaraziko ditugu irabazlearen eta zozketaren sariaren izenak.

### BOTOA EMATEKO ▶

Nora jo. Posta elektronikoz bidetuz edo telefonoz eman dezakezue botoa.

▶ Posta elektronikoz: argazki lehiaketarako delo zehaztu, eta zuen uzte argazki onena denari dagokien zenbakia argi azalduz eta harremantzen jarriko dituzue (izena, telefonoa, Nortasun Agria...) jarrila, tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidera bidali.

▶ Hiritzen Tolosako egoitzara deituta: 943 65 56 95.

Epasa: Gihar zabalduko dugu bokoitzeko epasa, eta hilaren 12a izango da horretarako azken eguna.

Araua: Harpidetun edo irakurle bakoitzak behin baino ezinago du botoa eman, Zuen datuak argi zehaztu, betaz.


Saria: Argazki lehiaketan botoa ematen duzen gutxienez Hirzako materiala zozketariko dugu.



3 Iban Ormazabal (Tolosa). «Plaiandun, Irunen, Txingudiko parke naturalarean».



6 Ander Otezabal (Iruña). «Pragan dagoen hierri judutar balaen ateratako irudia».



4 Itaki Gomez (Tolosa). «Parisen, Notredam-eko katedralaren kuspegi».



7 Naroa Ezeiza (Ibarr). «Soustons inguruan dagoen lakua, Landetan».



5 Fernando Rojo (Tolosa). «Karadulen (Kurdistan), gazte-gazteandik lansan».



8 Kepa Goikoetxea (Tolosa). «Tindufeko desertuan, Mohamed eta Fatma».

**udaberriko esbaintza handia**

Playa de las Americas - 499

PartAuzentara 168

105

54

**EROSKI bidaiak**



**PILOTA PARTIDUAK**

aspepelota.com

Galarza V - Apeztegia  
Del Rey - Elkoro

TITIN III - NALDA III  
CHAFEE - EULATE

Galarza VI - Arizmendi  
Berasaluze IX - Galarza VI  
(2.mailako Eskuz binakako txapelketa)

**Tolosako Beotibar pilotalekuan  
Maiatzak 8 Astelehena  
arratsaldeko 16:30etan**

**iragarki laburrak ▶**

**SALGAI**  
Aerba. Seat Toledo TDI, 2002koa.  
53.000 kilometro. Urtebeteko  
garantia. 943 11 77 59.

**BESTEAK**  
Danber-jotzalea. Lizardi  
kanporiak (mesken)  
danber-jotzalea behar du.  
Deitur: 606 63 39 83 (Matte),  
686 40 59 32 (Euzkari).

**TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Etabaidea. Zer iruditzen  
Voth-Gorostidi etebizitza  
tasatuetako zozketan parte  
hartu ahal izateko baldintzak?

**Sinesteztina!!**

**Iritsi da Zatoz probatzera TOLOSA MOTORera**

**TOLOSA MOTOR, S.A.**  
San Esteban auzoa, 144A • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 65 03 37 • Faxa: 943 65 29 38 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

**207**

## TOLOSA ▶ AZOKA

ESTI EZEIZA

Horiak, gorriak, arrosak, laranja... kolore guztietako loreak ikus zitezkeen, atzo, Tolosako kaleetan. Berdura plaza loreen eta landareen erakusleho bilakatu zen. Udaberria eskualdera iritsi dela nabarmenduz, urteko azoka koloretsuena egin zen. Hala, eguraldiak lagundu ez bazuen ere, goiz-goizetik animatu zen jendea XVII. Lore eta Landare Azoka bisitatzera.

Saltzaileen esanetan, «nahiz eta jende ugari ibili kalean, iazko urteetan baino salmenta gutxiago» egin zituzten. Izan ere, «egun hauetan egindako auriaren ondorioz, lurrak bustiegia daude, eta tomate edo letxugak landatzeko ez da garai ona». Halaxe azaldu zioten HITZARI Berdura plazan erosle batzuek.

Postuetako merkatarien hitzetan «landareen artean, piperrak saldu ziren batik bat», eta loreetan «barrurako, *Anthurium*-ak eta *Begonia rex*-ak; eta kanporako, alegriak, geranioak eta begoniak».

#### 4.000 krabelin 750. urteurrenerako

Lore eta landare postu berezi hauek Berdura plazan bildu ziren, horrela, Trianguloan astero egiten den azokak bere ohiko protagonismoa galdu zuen. Hala ere, azken honen itxura ez zen betikoa. Salmenta postu batzuetan ere lore eta landareen kolore biziak nabarmentzen ziren. Eta Kultur Etxeko horma 4.000 krabelinez egindako Tolosa 750. urteurrenaren logoak apaintzen zuten. Hau, goiz-goizetik, Hirukide-Jesuitinetako haur eta gaztetxoek atondu zuten.

Bestetik, Alde Zaharreko oinezkoentzako kaleak alegria lorez jantzita esnatu ziren atzo. Izan ere, 1.000 lineal baino gehiago atondu zituzten bertan. Jende askok ez zela horretaz konturatu aipatzen zuen postuz postu ari zen bitartean, baina kale bakoitzak bere kolorea hartu zuen.

# Euria eta hodeiak izan arren, kolore biziek irabazi dute XVII. Lore eta Landare Azokan

Berdura Plaza jendez josita ikus bazitekeen ere, oro har, «urreko urteetan baino salmenta gutxiago» egin zituzten postuetako merkatariek



Tolosaren 750. urteurrenaren logoa 4.000 krabelinez estalia. E. EZEIZA



Letxu kalea, alegria lore zuriez apainduta. E. EZEIZA



Kanporan jartzeko, besteak beste, begoniak saldu ziren gehien. E. EZEIZA



Baratzarako landare ugari ere izan zen erosgai. E. EZEIZA



Udaberriko loreek kolorez bete zuten Berdura plaza. E. EZEIZA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
**50.000**  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

## Kolore eta bizitza eztanda

**Pablo Alberdi** ▶ Lehenengo orduetatik, zeru gris eta estaliek in esnatu zen atzo Tolosa. Horrela, Lore eta Landare Azoka berezia distira eta kolorerik gabe geratuko zela ziru dien, baina segituan animatu ziren merkatu plaza eta Tolosako Alde Zaharreko kaleak. Aurtengoa XVII. izan da, eta Tolosaldea zeharkatzen duen Donejakue bidearen harira antolatu diren ekitaldiekin bat egin du. Ezin aipatu gabe utzi azokaren inguruan sentitu ahal zitekeen bizia, kolorea eta usaina.

Berdura Plazan bildu ziren azokako postu gehienak; hala ere, Triangulo Plazan, asteroko produktuez gain, lore eta landarezain berri batzuk ere ikus zitezkeen. Gainera, eta Udalararen ekimen bezala, goizean, herriko ikasle talde batek Tolosaren 750. urteurreko logoa lorez estali zuten.

Bestetik, Berdura Plazan kolore eta bizitza eztanda ematen zen. Ziurrenik, Ramos Azkarate gustura egongo zen inguratzen zuen ikuskizun horrekin, eta bertsoaren bat ere bururatuko zitzaion. Izan ere, enparantzaren erdian kokatuta dago bere oinarri xumea... ◀

### XVII. LORE ETA LANDARE AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Triangulo plaza</b>		
Bertako ilarrak	10,00	-
Babak	3,00	-
Patata berria	2,00	-
Marrubiak	3,00	-

<b>Mikologikoak</b>		
Zizak	15,00	40,00
Onddoak	30,00	-
Morbela	15,00	-

<b>Lore usainsuak</b>		
Oreganoa	1,20	3,00
Erromeroa	1,20	3,00
Ezkaia	1,20	3,00
Menda	1,20	3,00
Albahaka	1,20	3,00
Izpilikua	1,20	3,00
Gerania	2,00	-
Artzia	40,00	100,00
Begonia	7,00	10,00
Edelweis	3,00	-

<b>Garaiko loreak</b>		
Alegria	1,00	-
Gerania	1,80	3,00
Lobelia	1,00	-
Surfinia	2,30	-

### ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN



Puxikak hankan zituztela ederki jolastu ziren gazteboak. I. GARCIA

## 40 haur inguru aritu dira Umeen Egunerako prestatutako jolasetan

Pedro Mari Otaño eskolako frontoia bihurtu zen jolasleku atzo botatako euriarengatik

I. GARCIA

Atzoko eguraldi kaskarrak ere izan zuen eraginik Maiatza Saltsan egitarauaren baitan egin zuten Umeen Egunean. Joxe Arregi plazan elkartzekoak ziren, baina Pedro Mari Otaño eskolako frontoira joan ziren. 40 haur bildu ziren, eta Kostata Gazte Asanbladak antolatutako jokoetan aritu ziren. Antolatzaileak gustura zeuden, espero baino haur gehiago azaldu baitziren.

Jokoetan hasi aurretik batzuei eta besteei, beranduago etorritakoak, jolasak hasi eta gero, aurpegia margotu zizkieten. Aulkien jokoekin hasi ziren lehenengo, eta haurrek beren abilezia eta azkartasuna erakutsi zuten. Puxikekin

egindako jokoan ere antzeko gaitasunak erabili behar ziren. Puxika bat hanka bati lotuta, bestearena puskatu behar da joko horretan, bakoitzaren inorrek lehertarazi gabe. Antolatzaileetako batzuk ere animatu ziren.

Zapi jokoaren txanda etorri zen geroago, eta goizeko ekitaldiak amaitzeko marrazki lehiaketa egin zuten. Sariak banatu eta gero, arraltsalderako hitzordua egin zuten, ginkanan aritzeko. Bizikletan egin beharreko proba prestatu zuten Kostatakoek. Umeen Egunari amaiera emateko, *Xurdir* antzerki musikala ikusi eta entzuteko aukera izan zuten haurrek. Zizurkil Goiko Intxaurren frontoian egin zuten emanaldia.



Aurpegiki margotu zizkieten haurrei. I. GARCIA

### TOLOSA ▶ KULTURA



## Donejakue bidearen inguruan

**Erredakzioa** ▶ Aste honetan Donejakueko barrualdeko bidearen inguruko ekitaldiak burutzen ari dira Tolosan. Ostegunean kontzertua izan zen entzungai Santa Klaran. Herenegun arratsaldean hitzaldi interesgarria eman zuten —argazkian—, bideak Tolosaldean izan duen eta duen eraginaren inguruan. Atzokoan Erromesen Meza ospatu zuten Donejakue bideak ukitzen dituen herrietako parrokoek. Eta gaur goizean abiatuta, Tolosa-Beasain ibilaldia egingo dute, Donejakue bidearen Adiskideen Elkarte-ko antolatuta. I. GARCIA

### ANOETA ▶ KIROLA



## Herri kirolen erakustaldia

**Erredakzioa** ▶ Herri kirolen festa egin zuten atzo eguerdian Anotako Benta-Aldea bodegoiaren ondoan. Jokin Garmendiaren idi pareta —argazkian— eta astoa aritu ziren harriari tiraka. Astoak ez zituen izan ondoan iragarririk hamar lagunak, baina, noski, mugitu zuen pisua ere txikiagoa izan zen. Aizkolariaren txanda izan zen ondoren, eta harri-jasotzen ere erakustaldia egin zuten. 50 lagun inguru bildu ziren ikuskizuna jarraituz. Bazkariarekin bukatu zuten ekitaldia. I. GARCIA

**TOLOSALDEA** GOMAILARLO I. N. INSTITUTUA  
 INSTITUTO SUPERIOR DE FORMACIÓN PROFESIONAL TOLOSALDEA

**JARDUNALDI IREKIA**

Ikasle, guraso, langile, enpresa eta interesatutako guztiei zuzendua.

Ikastetxeko instalazioak ezagutzeko bisita gidatua eta bere eskaintza akademikoa.

Eguna: Osteguna 11  
 Ordua: 18:00etatik 21:00etara  
**ZURE ETORKIZUNA ZIURTATZEN DUGU**

www.tolosaldea.com • Tel.: 943 65 11 47

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Berrobi.** XIV. Kultur Astea. Bihar: 17:15ean, suziri eta buruhandiak; 18:00etan, halterofilia erakustaldia Urreburu pilotalekuan Zizurkilgo Danena elkartearen eskutik.  
**Ibarra.** Garagardo Festa, 18:00etatik 00:00etara. 18:30ean, herri kirolak.  
**Belauntza, Leaburu-Txarama.** Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute Udalek. Izen-ematea hilaren 10a arte, Leaburuko udalekuan, Belauntzako Kultur Etxean eta 943 67 00 20an, 8 eurotan.

**HITZALDIAK**

**Tolosa.** 3. mailako ikasleen gurasoei zuzendutako saioa. Etzi, 19:00etan, Orixen.

**MUSIKA**

**Amezket.** Errenteriko Landarbaso abesbatza, 11:30ean.

**ZINEMA**

**Tolosa.** Kultur Etxean: *Bitelchus* (gazteentzat, komedia beldurgarria), 17:00etan. *Cafe irlandes* (helduentzat, komedia-drama), 19:30ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Areso.** Goizueta, F. Loidi ebea. 112.  
**Tolosa.** Ollareaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

**Bihar**  
**Ibarra.** Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.  
**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# 'Laguna' txerria zen

**IBARRA ▶** Eneko Aritzaren Lagunak elkarteak prestatzen ari den 'Sua' filmaren eszena bat grabatu zuten atzo Izaskunen, lau hankakoa protagonista zela

IMANOL GARCIA

**A**puistu bat zegoen tarteko: dirutza jartzen zuen jauntxo batek alde bate-tik, eta bestetik herritar batek bere gurasoen baserria. 60 kilo sagar erre jan behar zituzten herritarrak eta bere lagun batek. Eta hauek agertzerakoa, jauntxoak sorpresa hartu zuen. Laguna txerria zen, eta jauntxoak amore eman behar izan zuen.

Eneko Aritzaren Lagunak elkarteak film berria ari dira prestatzen, *Sua* izenekoa, eta atzo apustu baten eszena grabatu zuten Izaskunen. Egunotan Ibarra egiten ari diren III. Garagardo Festaren kultur ekitaldien baitan burutu zuten eszena grabaketa. Auzo horretako euskal arrazako txerria izan zen protagonista, eta *izarrak* ondo bete zuen bere papera, sagar-erreak zeuden otarretik jaten hasi baitzen. Hori eskatzen zioten antolatzaileek.

Euriak ere agertu nahi izan zuen filman eta lan gehiago eman zien errealizadoreei. Jen-



Txerriak ederki sartu zuen muturra sagar-erreak zeuden otarran. I. GARCIA

dea ere bildu zen, eta askok Ardi Aroko arropak soinean zituztela parte hartu zuten grabaketan. Batez ere zurrumurrua sortu behar zuten estralantetan aritutakoek, eta herritarren aldeko eta jauntxoaren kontrako oihuak egin. Eguraldi onaren faltan, jendeak berak jarri zuen giro ona.



Filmaren taldea, grabaketaren une batean. I. GARCIA

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Pilar Goenaga.** Amaren egunean zorionak Gonzalez-Goenaga sendiaren partetik. Jarrailtu hain osasuntsu urte askoan.  
**URTE ASKOAN**  
**Urko.** Bihar urtebete. Zorionak Tolosa, Orereta eta Orendaingo lagun partetik. Muxu handi bat.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...  
**hitza**  
 agurren tartea

**FotoDepilazioa**

**45€** Besapeak gizonetako edo emakumea Sessio 1

**90€** Besapeak gizonetako edo emakumea Sessio 1

**¡PROMOZIO LIMITATUA MAIATZAREN 13 ARTE TOLOSAKO DEPITOTAL ZENTRUTANI!**

**Dori Apaindegia** 943 65 40 53 Gemikoko Artibelen Lorategiak, 4  
**Shuyana Edergintza** 943 67 54 88 Eskolapioetako Lorategiak 3-1ª A

**Depitotal**